

I. Atala / Sección I

**Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa
Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia****Foru Aldundia / Diputación Foral****Ogasun eta Finantza Saila**

6/2013 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, abenduaren 10ekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 1994ko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Araua aldatzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomi Ituna onartzen duen 2002ko maiatzaren 23ko 12/2002 Legeko 26. artikuluan ezartzen denez, Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen arau substantibo eta formal berberei jarraituko zaie Balio Erantsiaren gaineko Zerga eraentzeko.

Ekintzaileei eta haien nazioartekotzeari laguntzeko 2013ko irailaren 27ko 14/2013 Legeak aldaketak eragin ditu Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legean, eta aldaketa horiek Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-arautegian sartu behar dira. Besteak beste, enpresek dituzten likidezia-arazoak eta kreditua lortzeko arazoak arintzeko, kutxa-irizpidearen araubide berezia sortu du Balio Erantsiaren gaineko Zergaren arloan.

Araubide berezi hori erabiltzeko aukera jasota dago Balio Erantsiaren gaineko Zergaren sistema komunari buruzko Kontseiluaren 2006ko azaroaren 28ko 2006/11/EE Direktibako 167 bis artikuluan, eta manu hori 2013ko urtarrilaren 1etik aplikatu behar da. Europar Batasuneko arauketa berri horrek aukera ematen die 2.000.000 euroko eragiketa-bolumena gainditzen ez duten subjektu pasibo batzuei atzeratzeko haien bezeroei jasanarazitako BEZaren sortzapena eta, beraz, BEZ horri dagokion aitortpena eta ordainketa ere atzeratzeko. Merkataritzako eragiketa gehienetan aplikatu ahal izango dute aukera hori, eragiketok osorik edo zati bat kobratu arte, haiek egin diren urtearen hurrengo urteko abenduaren 31ko mugarekin betiere.

Hala ere, merkataritzako betebeharrak propioak betetzean atzeratzea sustatu ahal duten egoerak ekiditeko, Europako arautegiak ezarri du subjektu pasiboek ere atzeratu egingo zaiela haien eskuraketetan jasandako BEZaren kenkaria. Izan ere, eskuraketak hornitzaileei ordaindu arte atzeratuko da kenkari hori, eta, kasu horretan ere, eragiketak egin diren urtearen hurrengo urteko abenduaren 31 izango da muga.

Subjektu pasiboak aukeran daukan araubide berezi berri hau haren eragiketa guztietan aplikatuko da, salbuespen batzuekin, hala nola Europar Batasunaren barruko eragiketak eta zergaren beste araubide berezi batzuk dituzten eragiketak.

Azkenik, araubide berezia aplikatu zaien eragiketei dagokienez, jasanarazitako kuoten sortzapena eta jasandako kuoten kenkaria egiteko aukera ere jaso da, baldin eta kuotaren sortzapena gertatu ez bada edo kenkaria egin gabe badago, kasu hauetan: hartzekodunen konkurtsoa badago eta kreditu kobrazinen ondorioz zerga-oinarria aldatzen bada.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 8. artikuluan zehazten denez, Foru Aldundiak helburu bakarrarekin eman ahal izango ditu zergen arloan foru arau maila duten foru dekretu arauemaileak: Bizkaiko Lurralde Historikoko legeria egokitzeko, baldin eta, Ekonomia Itunean xedatutakoaren arabera, Lurralde Historikoan ere araubide erkideko lurraldean dauden edukizko eta formazko arau berberak izan behar badute aginduzko. Bada, horregatik guztiatik, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak proposatu eta Foru Aldundiak 2013ko abenduaren 10ean egindako bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

Departamento de Hacienda y Finanzas

DECRETO FORAL NORMATIVO 6/2013, de 10 de diciembre, por el que se modifica la Norma Foral 7/1994, de 9 de noviembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido.

El Concierto Económico con la Comunidad Autónoma Vasca, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo, establece en su artículo 26 que el Impuesto sobre el Valor Añadido se regirá por las mismas normas sustantivas y formales que las establecidas en cada momento por el Estado.

La Ley 14/2013, de 27 de septiembre, de apoyo a los emprendedores y su internacionalización, ha realizado modificaciones en la Ley del Impuesto sobre el Valor Añadido, que deben ser incorporadas a la normativa tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia. Entre otras, y con objeto de paliar los problemas de liquidez y de acceso al crédito de las empresas, ha creado, en el ámbito del Impuesto sobre el Valor Añadido, el régimen especial del criterio de caja.

La posibilidad de adoptar este régimen especial se encuentra contenida en el artículo 167 bis de la Directiva 2006/112/CE, del Consejo, de 28 de noviembre de 2006, relativa al sistema común del impuesto sobre el valor añadido, precepto que resulta de aplicación desde el pasado 1 de enero de 2013. Esta nueva regulación Comunitaria permite, para determinados sujetos pasivos que no superen los 2.000.000 de euros de volumen de operaciones, retrasar el devengo y la consiguiente declaración e ingreso del I.V.A. repercutido en la mayoría de sus operaciones comerciales hasta el momento del cobro, total o parcial, a sus clientes, con la fecha límite del 31 de diciembre del año inmediato posterior a aquel en que las mismas se hayan efectuado.

No obstante, para evitar situaciones que pudieran incentivar el retraso en el cumplimiento de sus propias obligaciones comerciales, la normativa comunitaria establece que los sujetos pasivos verán retardada igualmente la deducción del I.V.A. soportado en sus adquisiciones hasta el momento en que efectúen el pago de estas a sus proveedores, y con igual límite del 31 de diciembre del año inmediato posterior a aquel en que se hayan efectuado las operaciones.

El nuevo régimen especial optativo para el sujeto pasivo determinará su aplicación para todas sus operaciones, con algunas excepciones como las operaciones intracomunitarias y las sometidas a otros regímenes especiales del Impuesto.

Por último, se prevé, asimismo, el devengo de las cuotas repercutidas y la deducción de las cuotas soportadas respecto de las operaciones a las que haya sido de aplicación el régimen especial, que estuvieran aún pendientes de devengo o deducción en los supuestos de concurso de acreedores y de modificación de base imponible por créditos incobrables.

Por ello y en virtud de la autorización contenida en el artículo 8 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, en la que se recoge que la Diputación Foral podrá dictar disposiciones normativas con rango de Norma Foral en materia tributaria denominadas Decretos Forales Normativos en el supuesto de que su objeto sea exclusivamente la adaptación de la legislación del Territorio Histórico de Bizkaia, cuando, de conformidad con lo dispuesto en el Concierto Económico deban regir en dicho Territorio Histórico las mismas normas sustantivas y formales que en el territorio de régimen común, a propuesta del diputado foral de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación de la Diputación Foral en su reunión de 10 de diciembre de 2013.

XEDATZEN DA:

SE DISPONE:

Artikulu bakarra.—Kutxa-irizpidearen araubide berezia

Bat: Aldatu egiten da Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 1994ko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 120. artikuluko Bat zenbakia, eta honela idatzita geratuko da:

«*Bat:* Balio Erantsiaren gaineko Zergan dauden araubide bereziak hauek dira:

1. Araubide erraztua.
2. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide berezia.
3. Ondasun erabili, arte-objektu, antzinateko objektu edo bilduma-objektuen araubide berezia.
4. Inbertsio-urreetan egiten diren eragiketeei aplikatu ahal zaien araubide berezia.
5. Bidaia-agentzien araubide berezia.
6. Baliokidetasun-errekarguaren araubide berezia.
7. Bide elektronikoen bidez emandako zerbitzuei aplikatu ahal zaien araubide berezia.
8. Erakunde-taldearen araubide berezia.
9. Kutxa-irizpidearen araubide berezia.»

Bi: Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 1994ko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko IX. tituluan X. kapitulua erantsi da, eta testu hau dauka:

«X. KAPITULUA

KUTXA-IRIZPIDEAREN ARAUBIDE BEREZIA**163 decies artikulua.—Araubidea aplikatzeko baldintza subjektiboak**

Bat: Urte naturalean 2.000.000 eurotik beherako eragiketa-bolumena duten zerga honen subjektu pasiboek aplikatu ahal izango dute kutxa-irizpidearen araubide berezia.

Bi: Subjektu pasiboak aurreko urte naturalean hasi baditu enpresa-jarduerak edo jarduera profesionalak, urte osoari dagokion eragiketa-bolumena kalkulatu da.

Hiru: Subjektu pasiboak ez baditu aurreko urte naturalean hasi enpresa-jarduerak edo jarduera profesionalak, uneko urte naturalean aplikatu ahal izango du araubide berezia.

Lau: Aurreko zenbakietan ezarritakoari dagokionez, subjektu pasiboak egindako eragiketa-bolumena zehazteko, Balio Erantsiaren gaineko Zerga sortzen denean joko dira egindakotzat eragiketok, edo, bestela, eragiketoi ezin izan bazitzaie aplikatu kutxa-irizpidearen araubide berezia, zerga horren sortzapena gertatu zenean.

Bost: Subjektu pasiboek ezin izango dute kutxa-irizpidearen araubidea aplikatu urte naturalean hartzaile berari eskudirutan kobrantzak egin dizkionean eta kobrantza horiek erregelamenduz ezarritako zenbatekoa gainditzen dutenean.

163 undecies artikulua.—Kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatzeko baldintzak

Aurreko artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten subjektu pasiboek aplikatu ahal izango dute kutxa-irizpidearen araubide berezia, erregelamenduz ezarritakoaren arabera hura aplikatzea aukeratzen dutenean. Aukera hori luzatu egingo da hari uko egiten ez bazaio. Uko egiteko, erregelamenduz ezarritakoa bete behar da. Uko egiteak 3 urteko balioa izango du, gutxienez.

163 duodecies artikulua.—Araubidea aplikatzeko baldintza objektiboak

Bat: 163 decies artikuluan aipatzen diren subjektu pasiboek zerga aplikatu behar den lurraldean egindakotzat jotzen diren eragiketetan aplikatu ahal izango dute kutxa-irizpidearen araubide berezia.

Kutxa-irizpidearen araubide berezia subjektu pasiboak egindako eragiketa guztiei aplikatuko zaie, artikuluan honen hurrengo zenbakian ezarritakoaren kalterik gabe.

Artículo único.—Régimen especial del criterio de caja

Uno: Se modifica el apartado Uno del artículo 120 de la Norma Foral 7/1994, de 9 de noviembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido, quedando redactado de la siguiente forma:

«*Uno:* Los regímenes especiales en el Impuesto sobre el Valor Añadido son los siguientes:

1. Régimen simplificado.
2. Régimen especial de la agricultura, ganadería y pesca.
3. Régimen especial de los bienes usados, objetos de arte, antigüedades y objetos de colección.
4. Régimen especial aplicable a las operaciones con oro de inversión.
5. Régimen especial de las agencias de viajes.
6. Régimen especial del recargo de equivalencia.
7. Régimen especial aplicable a los servicios prestados por vía electrónica.
8. Régimen especial del grupo de entidades.
9. Régimen especial del criterio de caja.»

Dos: Se introduce un nuevo Capítulo X en el Título IX de la Norma Foral 7/1994, de 9 de noviembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido, con la siguiente redacción:

«CAPÍTULO X

RÉGIMEN ESPECIAL DEL CRITERIO DE CAJA**Artículo 163 decies.—Requisitos subjetivos de aplicación**

Uno: Podrán aplicar el régimen especial del criterio de caja los sujetos pasivos del Impuesto cuyo volumen de operaciones durante el año natural anterior no haya superado los 2.000.000 de euros.

Dos: Cuando el sujeto pasivo hubiera iniciado la realización de actividades empresariales o profesionales en el año natural anterior, el importe del volumen de operaciones deberá elevarse al año.

Tres: Cuando el sujeto pasivo no hubiera iniciado la realización de actividades empresariales o profesionales en el año natural anterior, podrá aplicar este régimen especial en el año natural en curso.

Cuatro: A efectos de determinar el volumen de operaciones efectuadas por el sujeto pasivo referido en los apartados anteriores, las mismas se entenderán realizadas cuando se produzca o, en su caso, se hubiera producido el devengo del Impuesto sobre el Valor Añadido, si a las operaciones no les hubiera sido de aplicación el régimen especial del criterio de caja.

Cinco: Quedarán excluidos del régimen de caja los sujetos pasivos cuyos cobros en efectivo respecto de un mismo destinatario durante el año natural superen la cuantía que se determine reglamentariamente.

Artículo 163 undecies.—Condiciones para la aplicación del régimen especial del criterio de caja

El régimen especial del criterio de caja podrá aplicarse por los sujetos pasivos que cumplan los requisitos establecidos en el artículo anterior y opten por su aplicación en los términos que se establezcan reglamentariamente. La opción se entenderá prorrogada salvo renuncia, que se efectuará en las condiciones que reglamentariamente se establezcan. Esta renuncia tendrá una validez mínima de 3 años.

Artículo 163 duodecies.—Requisitos objetivos de aplicación

Uno: El régimen especial del criterio de caja podrá aplicarse por los sujetos pasivos a que se refiere el artículo 163 decies a las operaciones que se entiendan realizadas en el territorio de aplicación del Impuesto.

El régimen especial del criterio de caja se referirá a todas las operaciones realizadas por el sujeto pasivo sin perjuicio de lo establecido en el apartado siguiente de este artículo.

Bi: Kutxa-irizpidearen araubide berezitik kanpo daude eragiketa hauek:

- a) Araubide hauetako baten menpe daudenak: araubide erraztua; nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide berezia; balio-kidetasun-errekarguarena; inbertsio-urrearena; bide elektronikoen bidez emandako zerbitzuei aplikatu ahal zaiena eta erakunde-taldeena.
- b) Foru arau honetako 21, 22, 23, 24 eta 25. artikuluetan aipatzen diren ondasun-emate salbuetsiak.
- c) Batasunaren barruko ondasun-eskuraketak.
- d) Zergaren subjektu pasiboa eragiketa egiten zaion enpresaburua edo profesionala denean, foru arau honetako 84. artikuluen Bat zenbakiko 2, 3 eta 4. puntuetan ezarritakoaren arabera.
- e) Inportazioak eta inportazioen pareko eragiketak.
- f) Foru arau honetako 9.1 eta 12. artikuluetan aipatzen direnak.

163 terdecies artikulua.—Kutxa-irizpidearen araubide bereziaren edukia

Bat: Araubide berezi hau aplikatu ahal zaien eragiketetan, prezioa osorik edo zati batean kobratzen denean gertatuko da zergaren sortzapena, benetan jasotako zenbatekoengatik, edo, bestela, prezioa ez bada kobratu, eragiketa egin den urtearen hurrengo urteko abenduaren 31n sortuko da.

Horretarako, eragiketaren prezioa noiz kobratu den (osorik edo zati bat) egiaztatu beharko da.

Bi: Araubide berezi hau aplikatu ahal zaien eragiketetan, faktura egin eta ematen denean jasanarazi behar da zerga, baina eragiketaren sortzapenaren ulean joko da egindakotzat, sortzapen hori aurreko zenbakian xedatutakoaren arabera zehazten dela.

Hiru: Araubide berezi hau aplikatu ahal duten subjektu pasiboek foru arau honetako VIII. tituluaren ezarritakoaren arabera egin ahal izango dituzte kenkariak, berezitasun hauekin:

- a) Araubide berezi hau aukeratzen duten subjektu pasiboek kasuan, prezioa osorik edo zati batean ordaintzen denean sortuko da jasandako kuoten kenkariak egiteko eskubidea, benetan ordaindutako zenbatekoengatik, edo, bestela, ordainketa egin ez bada, eragiketa egin den urtearen hurrengo urteko abenduaren 31n.

Aurrekoa hala aplikatuko da, zerga-egitatea egindakotzat jotzen den ulea kontuan hartu gabe.

Horretarako, eragiketaren prezioa noiz ordaindu den (osorik edo zati bat) egiaztatu beharko da.

- b) Jasandako kuotei kenkaria aplikatzeko eskubidea sortu den likidazio-aldiari dagokien autoliquidazioan edo hurrengo aldiaketan baino ezin izango da erabili kenkarirako eskubidea, baldin eta eskubide hori sortzen denetik hasita lau urte igaro ez badira.

- c) Titularrak ez badu jasandako kuoten kenkarirako eskubidea aurreko letran ezarritako epean erabiltzen, eskubide hori iraungi egingo da.

Lau: Erregelamendu bidez ezarriko dira araubide berezi hau aplikatzen duten subjektu pasiboek dagozkien betebeharrak formalak.

163 quaterdecies artikulua.—Kutxa-irizpidearen araubide bereziari uko egitearen edo araubidetik kanpo geratzearen ondorioak

Kutxa-irizpidearen araubidea aplikatzeari uko egiten bazaio edo subjektu pasiboa araubide horretatik kanpo geratzen bada, araubide horren arauak mantenduko dira haren indarraldian egindako eragiketei dagokienez, aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera.

Dos: Quedan excluidas del régimen especial del criterio de caja las siguientes operaciones:

- a) Las acogidas a los regímenes especiales simplificado, de la agricultura, ganadería y pesca, del recargo de equivalencia, del oro de inversión, aplicable a los servicios prestados por vía electrónica y del grupo de entidades.
- b) Las entregas de bienes exentas a las que se refieren los artículos 21, 22, 23, 24 y 25 de esta Norma Foral.
- c) Las adquisiciones intracomunitarias de bienes.
- d) Aquellas en las que el sujeto pasivo del Impuesto sea el empresario o profesional para quien se realiza la operación de conformidad con los números 2.º, 3.º y 4.º del apartado uno del artículo 84 de esta Norma Foral.
- e) Las importaciones y las operaciones asimiladas a las importaciones.
- f) Aquellas a las que se refieren los artículos 9.1. y 12 de esta Norma Foral.

Artículo 163 terdecies.—Contenido del régimen especial del criterio de caja

Uno: En las operaciones a las que sea de aplicación este régimen especial, el Impuesto se devengará en el momento del cobro total o parcial del precio por los importes efectivamente percibidos o si este no se ha producido, el devengo se producirá el 31 de diciembre del año inmediato posterior a aquel en que se haya realizado la operación.

A estos efectos, deberá acreditarse el momento del cobro, total o parcial, del precio de la operación.

Dos: La repercusión del Impuesto en las operaciones a las que sea de aplicación este régimen especial deberá efectuarse al tiempo de expedir y entregar la factura correspondiente, pero se entenderá producida en el momento del devengo de la operación determinado conforme a lo dispuesto en el apartado anterior.

Tres: Los sujetos pasivos a los que sea de aplicación este régimen especial podrán practicar sus deducciones en los términos establecidos en el Título VIII de esta Norma Foral, con las siguientes particularidades:

- a) El derecho a la deducción de las cuotas soportadas por los sujetos pasivos acogidos a este régimen especial nace en el momento del pago total o parcial del precio por los importes efectivamente satisfechos, o si este no se ha producido, el 31 de diciembre del año inmediato posterior a aquel en que se haya realizado la operación.

Lo anterior será de aplicación con independencia del momento en que se entienda realizado el hecho imponible.

A estos efectos, deberá acreditarse el momento del pago, total o parcial, del precio de la operación.

- b) El derecho a la deducción solo podrá ejercitarse en la autoliquidación relativa al periodo de liquidación en que haya nacido el derecho a la deducción de las cuotas soportadas o en las de los sucesivos, siempre que no hubiera transcurrido el plazo de cuatro años, contados a partir del nacimiento del mencionado derecho.

- c) El derecho a la deducción de las cuotas soportadas caduca cuando el titular no lo hubiera ejercitado en el plazo establecido en la letra anterior.

Cuatro: Reglamentariamente se determinarán las obligaciones formales que deban cumplir los sujetos pasivos que apliquen este régimen especial.

Artículo 163 quaterdecies.—Efectos de la renuncia o exclusión del régimen especial del criterio de caja

La renuncia o exclusión de la aplicación del régimen especial del criterio de caja determinará el mantenimiento de las normas reguladas en el mismo respecto de las operaciones efectuadas durante su vigencia en los términos señalados en el artículo anterior.

163 quinquiesdecies artikulua.—Kutxa-irizpidearen araubide bereziaren eraginpeko eragiketak

Bat: Kutxa-irizpidearen araubide berezia aukeratu ez duten baina araubide horretan sartutako eragiketen hartzaile diren subjektu pasiboek enkarirako eskubidea, eragiketa horiengatik jasandako kuotei dagokienez, eragiketen prezioa osorik edo zati batean ordaintzen denean sortuko da, benetan ordaindutako zenbatekoengatik, edo, bestela, ordainketa egin ez bada, eragiketa egin den urtearen hurrengo urteko abenduaren 31n.

Aurrekoa zerga-egitatea egindakotzat jotzen den unea kontuan hartu gabe aplikatu ahal izango da.

Horretarako, eragiketaren prezioa noiz ordaindu den (osorik edo zati bat) egiaztatu beharko da.

Erregelamendu bidez ezarriko dira zer betebeharrak formal dagozkien kutxa-irizpidearen araubide bereziaren eraginpeko eragiketen hartzaile diren subjektu pasiboak.

Bi: Kutxa-irizpidearen araubide berezia aukeratu duten subjektu pasiboek zerga-oinarria aldatzen badute, foru arau honetako 80. artikuluko Lau zenbakian aipatzen denarekin bat, araubide berezia aukeratu duen subjektu pasibo zordunak jasandako kuoten kenkaria egiteko eskubidea sortuko da, aldatutako eragiketei dagokienez, baldin eta zerga-oinarriaren aldaketa egiten denean oraindik kenkaria egin gabe badago.

163 sexidescies artikulua.—Konkurto-adierazpenari buruzko autoaren ondorioak

Kutxa-irizpidearen araubide berezia aukeratu duen subjektu pasiboaren edo haren eragiketen hartzaile den subjektu pasiboaren konkurtoa adierazten bada, ondorio hauek sortuko dira konkurto-adierazpenari buruzko autoaren datan:

a) Kutxa-irizpidearen araubide berezia aukeratu duen subjektu pasiboak jasandarazitako kuoten sortzapena gertatuko da, data horretan sortzapena oraindik gertatu gabe bazegoen.

b) Kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatu zaien eragiketen hartzaile izan den subjektu pasiboak eragiketa horiengatik jasandako kuoten kenkaria egiteko eskubidea sortuko da, eragiketak oraindik ordaindu gabe badaude eta data horretan 163 terdecies.Hiru.a) artikuluan ezarritako epea igaro ez bada.

c) Kutxa-irizpidearen araubide berezia aukeratu duen konkurtopeko subjektu pasiboak jasandako kuoten kenkaria egiteko eskubidea sortuko da, araubide berezi horretan sartuta ez dauden eragiketei dagokienez, eragiketa horien hartzaile izan bada, oraindik ordaindu gabe badaude eta data horretan 163 terdecies.Hiru.a) artikuluan ezarritako epea igaro ez bada.

Konkurtoan sartuta dagoen subjektu pasiboak berak sortutako kuotak aitortu beharko ditu, eta aurreko letretan aipatu diren jasandako kuoten kenkaria erabili beharko du konkurto-adierazpena baino lehenagoko zerga-egitateei erregelamenduz dagoen autolikidazioan. Halaber, subjektu pasiboak data horretara arte kenkaria aplikatu gabe zuten jasandako kuotak aitortu beharko ditu autolikidazio horretan.»

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa

Foru dekretu arauemaile hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta egunaren biharamunean jarriko da indarrean, eta 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Bigarrena

Baimena ematen zaie Bizkaiko Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuari, foru dekretu arauemaile hau garatu eta betearazteko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzaten.

Hirugarrena

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsai-

Artículo 163 quinquiesdecies.—Operaciones afectadas por el régimen especial del criterio de caja

Uno: El nacimiento del derecho a la deducción de los sujetos pasivos no acogidos al régimen especial del criterio de caja, pero que sean destinatarios de las operaciones incluidas en el mismo, en relación con las cuotas soportadas por esas operaciones, se producirá en el momento del pago total o parcial del precio de las mismas, por los importes efectivamente satisfechos, o, si este no se ha producido, el 31 de diciembre del año inmediato posterior a aquel en que se haya realizado la operación.

Lo anterior será de aplicación con independencia del momento en que se entienda realizado el hecho imponible.

A estos efectos, deberá acreditarse el momento del pago, total o parcial, del precio de la operación.

Reglamentariamente se determinarán las obligaciones formales que deban cumplir los sujetos pasivos que sean destinatarios de las operaciones afectadas por el régimen especial del criterio de caja.

Dos: La modificación de la base imponible a que se refiere el apartado cuatro del artículo 80 de esta Norma Foral, efectuada por sujetos pasivos que no se encuentren acogidos al régimen especial del criterio de caja, determinará el nacimiento del derecho a la deducción de las cuotas soportadas por el sujeto pasivo deudor, acogido a dicho régimen especial correspondientes a las operaciones modificadas y que estuvieran aún pendientes de deducción en la fecha en que se realice la referida modificación de la base imponible.

Artículo 163 sexiesdecies.—Efectos del auto de declaración del concurso

La declaración de concurso del sujeto pasivo acogido al régimen especial de criterio de caja o del sujeto pasivo destinatario de sus operaciones determinará, en la fecha del auto de declaración de concurso:

a) El devengo de las cuotas repercutidas por el sujeto pasivo acogido al régimen especial del criterio de caja que estuvieran aún pendientes de devengo en dicha fecha.

b) El nacimiento del derecho a la deducción de las cuotas soportadas por el sujeto pasivo respecto de las operaciones que haya sido destinatario y a las que haya sido de aplicación el régimen especial del criterio de caja que estuvieran pendientes de pago y en las que no haya transcurrido el plazo previsto en el artículo 163.terdecies.Tres, letra a), en dicha fecha.

c) El nacimiento del derecho a la deducción de las cuotas soportadas por el sujeto pasivo concursado acogido al régimen especial del criterio de caja, respecto de las operaciones que haya sido destinatario no acogidas a dicho régimen especial que estuvieran aún pendientes de pago y en las que no haya transcurrido el plazo previsto en el artículo 163.terdecies.Tres, letra a), en dicha fecha.

El sujeto pasivo en concurso deberá declarar las cuotas devengadas y ejercitar la deducción de las cuotas soportadas referidas en los párrafos anteriores en la autoliquidación prevista reglamentariamente, correspondiente a los hechos imponibles anteriores a la declaración de concurso. Asimismo, el sujeto pasivo deberá declarar en dicha autoliquidación, las demás cuotas soportadas que estuvieran pendientes de deducción a dicha fecha.»

DISPOSICIONES FINALES

Primera

El presente Decreto Foral Normativo entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia», con efectos a partir del 1 de enero de 2014.

Segunda

Se autoriza a la Diputación Foral de Bizkaia y al diputado foral de Hacienda y Finanzas para dictar cuantas disposiciones sean precisas para el desarrollo y ejecución del presente Decreto Foral Normativo.

Tercera

De acuerdo con lo previsto en la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre elección, organización, régimen y funcionamiento

laren 13ko 3/1987 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorritz, foru dekretu arauemaile honen onespeneraren berri emango zaie Batzar Nagusiei, berrets dezaten.

Bilbon, 2013ko abenduaren 10ean.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,
JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia,
JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN

(I-1948)

de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, de la aprobación del presente Decreto Foral Normativo se dará cuenta a las Juntas Generales para su posterior ratificación.

Bilbao, a 10 de diciembre de 2013.

El diputado foral de Hacienda y Finanzas,
JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

El Diputado General,
JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN

(I-1948)

Bizkaiko Foru Aldundiaren 176/2013 FORU DEKRETUA, abenduaren 10ekoa. Honen bidez, jarduera batzuk lehentasunezkoztat jotzen dira 2014ko ekitaldirako.

1998ko ekitaldiaz geroztik, zergei buruzko arautegian jasota dauden zerga-pizgarriak erabiliz, Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatu du sektore pribatuak parte hartzea Bizkaiko Lurralde Historikoan antolatzen diren garrantzi bereziko kultur ekitaldien finantziazioan, hain zuzen ere, Kultura Sailaren jardun-eremuaren barruan kultur ondarearen, kirolaren, astialdiaren, artearen eta kulturaren eta euskaren sustapenerako jardueren arloan egiten direnen finantziazioan.

Irabazizkoak ez diren erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauaren 29. artikuluko lehenengo zenbakian zehazten denez, Bizkaiko Foru Aldundiak ekitaldi bakoitzean lehentasunezkoak izango diren jarduerak ezarri ahal izango ditu, bai eta haiek bete beharreko irizpideak eta baldintzak ere.

Azpitarratzekoa da foru dekretu honetan ezarritako lehentasunezko jarduerari aplikatu dakizkiekeen zerga-pizgarriek beren horretan dirautela, nahiz eta dohaintzei aplikatu dakizkiekeen zerga-pizgarriak %20ra murriztu diren Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko foru arau berriko hogeigarren xedapen gehigarria aldatzearen ondorioz.

Foru dekretu honen helburua da 2014ko ekitaldirako zenbait jarduera lehentasunezkoztat jotzeko baldintzak eta prozedurak ezaritzea.

Hori dela bide, Ogasun eta Finantzen diputatuak proposaturik eta Foru Aldundiak 2013ko abenduaren 10ean egindako bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DA:

1. artikulua.—Xedea

Foru dekretu honen xedea da otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauko 29. artikulua garatzea. Arau hori irabazizkoak ez diren erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzkoa da.

2. artikulua.—Lehentasunezko jarduerak

Bat: 2014ko ekitaldian, jarraian aipatzen diren jarduerak lehentasunezkoztat jo ahalko dira Bizkaiko Lurralde Historikoan:

- a) Kirolaren arloan:
 - 1) Bizkaiko Lurralde Historikoko herri administrazioek eskola kirolaren arloan antolatzen edo babesten dituzten jarduerak.
 - 2) Bizkaiko Lurralde Historikoa eta bertako udalerrriak ezaugarritzen dituzten kirol-kluben jarduerak eta kirol-ekitaldiak edo emanaldiak, foru dekretu honen 3. artikuluan jasotzen diren betekizunak betetzen dituztenak.
 - 3) Udalen edo Aldundiaren titulartasuneko kirol-instalazio berriak egitea eta haien kirol-instalazioak artatu, eraberritu edo egokitzeko obrak egitea.
 - 4) Kirol-klubak elkartzea edo batzea, baldin eta horren ondorioz desagertu egiten badira elkartu edo batu diren taldeak.

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 176/2013, de 10 de diciembre, por el que se declaran prioritarias determinadas actividades para el ejercicio 2014.

Desde el ejercicio 1998, la Diputación Foral de Bizkaia ha estimulado, a través de los incentivos fiscales contemplados en la normativa tributaria, la participación del sector privado en la financiación de eventos culturales de especial trascendencia desarrollados en el Territorio Histórico de Bizkaia referidos al patrimonio cultural, actividades deportivas, de tiempo libre, manifestaciones artístico-culturales y promoción de actividades de fomento del uso del euskara, dentro del ámbito de actuación del Departamento Foral de Cultura.

El artículo 29 de la Norma Foral 1/2004, de 24 de febrero, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo, señala en su apartado 1 que será la Diputación Foral de Bizkaia la que podrá establecer para cada ejercicio una relación de actividades declaradas prioritarias, así como los criterios y condiciones que dichas actividades deben cumplir.

Es reseñable, que a pesar de que la nueva Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas en su disposición adicional vigésima, reduce el porcentaje de deducción aplicable a los donativos al 20 por 100, los incentivos fiscales aplicables a las actividades prioritarias contempladas en este Decreto Foral se mantienen.

Es objeto del presente Decreto Foral establecer las condiciones y procedimientos para la declaración como prioritarias de determinadas actividades para el ejercicio 2014.

En su virtud, a propuesta del diputado de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación de la Diputación Foral, en su reunión de 10 de diciembre de 2013,

SE DISPONE:

Artículo 1.—Objeto

El presente Decreto Foral tiene por objeto el desarrollo del artículo 29 de la Norma Foral 1/2004, de 24 de febrero, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo.

Artículo 2.—Actividades prioritarias

Uno: Las actividades que a continuación se relacionan podrán ser declaradas prioritarias en el Territorio Histórico de Bizkaia para el ejercicio 2014:

- a) En el ámbito deportivo, las relativas a:
 - 1) Las actividades organizadas o patrocinadas por las administraciones públicas del Territorio Histórico de Bizkaia en el ámbito del deporte escolar.
 - 2) Las actividades de los clubes deportivos y acontecimientos o manifestaciones deportivas que redunden en la difusión del nombre del Territorio Histórico de Bizkaia y de sus municipios, de acuerdo con los requisitos contenidos en el artículo 3 del presente Decreto Foral.
 - 3) La ejecución de nuevas instalaciones deportivas y la ejecución de obras de conservación, reforma o adecuación en instalaciones deportivas, siempre y cuando se trate de instalaciones de titularidad municipal o foral.
 - 4) Las asociaciones o uniones de clubes deportivos siempre y cuando dichas asociaciones o uniones supongan la desaparición de los clubes asociados.